

194. FITXA Hiri eta lurralde adimendunak bultzatzeko programa, garapen ekonomikoa eta produktiboa sustatzeko

Nori zuzendua: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 3. artikuluan definitutako toki-erakunde guztiak, bai eta probintzia bakarreko autonomia-erkidegoak eta hiri autonomoak ere.

Sarbide-esteka: [RedCyTI SMART ECONOMY - HIRI ETA LURRALDE ADIMENDUNAK BULTZATZEKO PROGRAMA, GARAPEN EKONOMIKOA ETA PRODUKTIBOA SUSTATZEKO | EGOITZA](#)

Erreferentziazko araudia: [TDF/1559/2025 Agindua, abenduaren 26koa, «Garapen ekonomikoa eta produktiboa sustatzeko hiri eta lurralde adimendunak bultzatzeko programarako» laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezarri eta 2025eko ekitaldirako deialdia egiten duena; Abenduaren 26ko TDF/1559/2025 Aginduaren laburpena, «Garapen ekonomikoa eta produktiboa sustatzeko hiri eta lurralde adimendunak bultzatzeko programarako» laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dituen, eta 2025eko ekitaldirako deialdia egiten duena.](#)

Eremuak: Eraldaketa digitala

Zenbatekoa: 89.155.632 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2026/03/30

Laburpena

Gauzazko laguntza hauen helburua hautatutako toki-erakundeek ekimenak Red.es-en bidez garatzea da. **Azpiegitura teknologikoen hornikuntza eta horiei lotutako soluzioak** izango dira ekimen horiek, hirian edo lurraldean teknologiak erabiliz garapen ekonomikoa bultzatzeko; halaber, hautagai izango dira **teknologia aurreratuak erabiliz, hiriekin eta lurraldeek bildutako datuei balioa emateko** eta horiek ekonomia- eta enpresa-jarduerarako duten potentziala aprobetxatzeko jarduketak ere, zerbitzu berriak eta berrikuntza garatzen lagunduz.

Aurkezten diren ekimenek **Smart Economy-ko Hiri Adimendunera** bideratuta egon beharko dute, erakunde eskatzailearen hiri edo lurralde adimendunaren estrategiarekin lerrokatuta egon beharko dute, eta **Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT)** erabilera handia izan beharko dute. IKT ondasun eta zerbitzuak aurrekontuaren erdigunea izango dira.

Ekintza-lerroak

Jarduera hauetako bat edo batzuk biltzen dituzten ekimenak aurkeztu beharko dira:

- **Azpiegitura teknologikoa hornitzeko jarduketak eta lotutako soluzioak**, hirian edo lurraldean garapen ekonomikoa ahalbidetzeko, hala badagokio, eremu geografiko horretan garrantzi berezia duten jarduera-sektoreetara bideratutako teknologiak erabiliz. Proba-espazioak edo *sandbox* deiturikoak, berrikuntzarako hiri-laborategiak, erakustokiak, esperimentazio-zentroak eta abar sortu daitezke, besteak beste.
- **Hiriek eta lurraldeek bildu dituzten eta Hiriko Plataformetan eskuragarri dauden datuen balioa nabarmentzeko jarduerak**, adimen artifizialaren edo biki digitalen gisako teknologia aurreratuak erabiliz, berrikuntza sustatzeko, zerbitzuak emateko eraginkortasuna hobetzeko eta erabakiak hartzeko zein hirietako ekitaldien aurrean erantzuteko gaitasuna optimizatzen.
- **Hiri eta lurraldeetako datuek garapen ekonomikorako eta produktiborako duten ahalmena aprobeitzatzera bideratutako jarduerak**, zerbitzu berrien garapena eta berrikuntza bultzatzeko enprekin eta beste eragile batzuekin informazioa partekatzea eta trukatea sustatuz. Hala badagokio, toki-erakundeen eta sektore pribatuaren arteko datu-partekatze kolektiborako jarduketak sartu ahal izango dira, azpiegitura teknologiko komunak erabiltzen dituztenak.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Honako hauek dira diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak:

- Azpiegitura teknologikoa jartzeara.
- Software-soluzioak ezartzea.
- Aholkularitza- eta analisi-lanak, baldin eta ezinbestekoak badira eta zalantzarik gabe ekimenaren jarduerak ezartzeari lotuta badaude. Ekimenaren definizioarekin lotutako aurretiazko aholkularitzak egitea ez da diruz lagunduko.
- Komunikazio-zerbitzuak, hodeiko zerbitzuak (softwarea, plataformak, azpiegiturak), zerbitzu profesionalak edo bestelakoak ematea, ekimena ezartzeko eta abian jartzeko behar-beharrezkoa den eperako. Onuradunak bere gain hartu beharko du zerbitzu horien kostu osoa, ekimena ezartzen amaitu ondoren.
- Datuen analitika aurreratua, prozesuak eta erabakiak optimizatzen, berrikuntzara eta etorkizuneko ekitaldiak iragartzera bideratua.
- Zentroen egokitzapen teknikoa (hartune elektrikoak eta konektagarritasuna).
- Datuak formatu interaktiboan eskuragarri jartzeko eta modu automatizatuan erabiltzeko aukera ematen duten jarduketak.
- Administrazio- eta langileak eta/edo sektore pribatuko parte-hartzaileak edo esku hartzen duten beste eragile batzuk gaitzea, baldin eta zalantzarik gabe lotuta badago proiektuaren azpiegiturarekin edo zerbitzuekin.
- Kudeaketa-, koordinazio-, jarraipen-, ebaluazio- eta auditoretza-kostuetarako aurrekontu-erreserbaren parte diren kontrol-, ebaluazio-, inpaktu- edo auditoretza-lanak.

Gastuetarako aldi hautagarria

Proiektuaren inplementazio-faseak 30 hilabeteko iraupena izango du gehienez.

Laguntzen zenbatekoa

Gauzazko laguntzak dira.

Ekimen bakoitzarengatik aurkeztutako aurrekontua ez da **1.500.000 eurotik** beherakoa izango, ezta **6.000.000 eurotik** gorakoa ere, zeharkako zerga aplikagarriak barne.

Erakunde parte-hartzaile bakoitzak konpromisoa hartzen du aurkeztutako ekimenaren aurrekontu osoa bere eskualdearen arabera finantzaketaren ehunekoarekin finantzatzeko, oinarrietan jasotakoaren arabera. Ehuneko horiek Red.es-ek EGEF 2021-2027 Espainiako Eskualde Anitzeko Programaren esparruan kudeatutako EGEF funtsen itzultze-tasen arabera dira. Euskadiren kasuan, ehuneko hori **% 60**koa izango da, eta Red.es-ek % 40ko ekarpena egingo du.